

Bertaratutako kideak:

Sonia Rivas Borrell.

Unibertsitateen ordezkaria

Iosu Mena Sarasola.

Ikastetxe publikoetako zuzendarien ordezkaria

Mari Luz Sanz Escudero.

Nafarroan desgaitasuna duten pertsonen ordezkaria (CERMIN)

Pedro Rascón Macías.

Aitortutako ospea duen pertsona

Pablo Arriazu Amat.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Arantza Zuriarrain Iñiguez.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Carmela Muñoz Ventura.

Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FETE-UGT).

M^a José Anaut Couso.

Sindikatuaren ordezkaria (UGT).

Lourdes Larunbe Arretxe.

Ikastetxeetako Administrazioko eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria

Gil Sevillano González.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Jabi Arakama Urtiaga.

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (Geroa Bai).

Josu Reparaz Leiza.

Toki entitateak ordezkatzuz:

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate titularren ordezkaria (Nafarroako Ikastolen Elkarte)

Tomás Rodríguez Garraza.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

María Rodríguez Moran.

Iruñean, 2020ko urriaren 7ko 17:02an, Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkura edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia bildu da Hezkuntza Departamentuko ekitaldi-aretoan, Manuel Martín Iglesias kontseiluburu dela, alboan adierazitako kideak bertan direla, eta Antonio Iriarte Moncayola idazkari dela. Honako hau izan da gai zerrenda:

1. Hezkuntzako kontseilariak Nafarroako Eskola Kontseilua agurtzea.
2. Aurreko bilkuraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.
3. Kontseiluburuaren informazio orokorra.
4. COVID-19aren kontrako neurriak koordinatzeko lantaldea sortzea. Izena: "COVID-19a koordinatzeko Hezkuntzako lan batzordea"
5. 2020/2021 ikasturterako lan plana.
6. 2020-2021 ikasturterako aurrekontuaren aurreproiektua.
7. Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2019-2020 ikasturteko Memoria
8. Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko txostena.

<p>Guraso elkarteen federazioen ordezkaria (HERRIKOA)</p>	<p>9. “Jokabide-laguntza positiboa eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeak” XXV. jardunaldiak.</p>
<p>Laura Sanzol Olleta.</p>	
<p>Ikastetxe pribatuetakoa irakasleen ordezkaria (FSIE-SEPNA)</p>	<p>10. Galderak eta eskaerak.</p>
<p>Begoña Unzué Vela.</p>	
<p>Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria</p>	
<p>D^a. Arantxa Ruiz Vidorreta</p>	
<p>Ikastetxe publikoetakoa irakasleen ordezkaria (STEE-EILAS).</p>	
<p>Mikel Rodríguez Aguirreche.</p>	
<p>Enpresarien elkartearen ordezkaria</p>	
<p>Eduardo Mayor Garcia.</p>	
<p>Guraso elkartearen federazioen ordezkaria (CONCAPA).</p>	
<p>Mikel Lizaso Odriozola.</p>	
<p>Ikastetxe publikoetakoa irakasleen ordezkaria (LAB).</p>	
<p>José Jorge Lanchas Rivero.</p>	
<p>Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE).</p>	
<p>Esther Lacasta Pérez-Ilzarbe.</p>	
<p>Toki entitatearen ordezkaria.</p>	
<p>Cristina Bayona Saez.</p>	
<p>Unibertsitatearen ordezkaria (NUP).</p>	
<p>M^a Soledad Garjón López.</p>	
<p>Ikastetxe publikoetakoa irakasleen ordezkaria (AFAPNA)</p>	
<p>Marta Díez Napal</p>	
<p>Guraso elkartearen federazioen ordezkaria (SORTZEN) .</p>	
<p>Ezin etorria adierazi dute:</p>	
<p>Ignacio M^a Iraizoz Zubeldia.</p>	

Toki entitateak ordezkatzuz:

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE).

Maite Pellejero Olcoz.

Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria.

M^a José Anaut Couso.

Sindikatuaren ordezkaria (UGT).

Germán Chocarro Garbayo.

Guraso elkarten federazioen ordezkaria BRITILA.

Etorri ez direnak:

Santiago Álvarez Folgueras.

Guraso elkarten federazioen ordezkaria (HERRIKOA).

Ainara González Rubio.

Berdintasunaren alde lan egiten duten elkarten ordezkaria

Mario Fabo Caleo.

Toki entitateen ordezkaria.

Patricia Fanlo Mateo.

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (I-E)

1. Hezkuntzako kontseilariak Nafarroako Eskola Kontseilua agurtzea.

Hezkuntzako kontseilariak hitza hartu eta eskertu nahi izan du Nafarroako Eskola Kontseiluko kideak bileran izatea, eta aurreko ikasturtea bukatzeko eta

aurtenoa hasteko lanetan parte hartzea. Ardura osoz hartu dute parte hezkuntza sistemaren defentsan.

Hezkuntza Departamentuak ezinbestekotzat du eskola aurrez aurre ematea eta, helburu horri begira, aurtengo ikasturtea prestatzeko lanetan aritu da.

Hezkuntzako lanak egin dira Osasun Departamentuak eta Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuak emandako jarraibideak betez eta haiekin elkarlanean. Departamentuaren jarduerak honako hauek izan dira:

- Pandemiak eragindako egoeretan irakasleei prestakuntza emateko prozesuak gauzatu dira.
- Eten digitala desagerrarazteko helburua da jomuga; horretan ari gara.

Gaur egun, birusak hezkuntza sisteman duen eraginak ez du inpaktu handirik sortu ikastetxeen funtzionamenduan.

2. Aurreko bilkuraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.

Kontseiluburuak kideei galdetu die ea egin behar duten aurreko bilkuraren aktari buruzko alegaziorik edo iruzkinik.

Mari Luz Sanzek eskatu du ohar argigarri bat sartzea aktan, bere aurretik zegoen Ignacio Tonik eskatutako oharren gainean. Ignaciok galdetu zuen zer kostu izan zuen Eskola Kontseiluak egindako jardunaldietan zeinu-hizkuntzako interpreteen zerbitzuak.

Kontseiluburuak adierazi du oharrak eskatuz Ignacio Tonik igorri zion mezua kontseiluko kide guztiei igorri zitzaizela, baita behar diren azalpen eta argibideak ere.

Mari Luz Sanzek adierazi du Ignacio Tonik berariaz esan diola akta aldatu behar dela.

Eskola Kontseiluko idazkariak adierazi du saioan gertatutakoa eta hartan egindako adierazpenak jasotzen direla aktan eta ez geroago gerta daitezkeenak.

Pedro Rascónek hitza hartu eta esan du akta honetan jadanik bilera hartan adierazi eta eztabaidatutakoa bildu dela eta, horrenbestez, ez dela beharrezkoa aurreko akta aldatzea.

Akta onetsi da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

3. Kontseiluburuaren informazio orokorra.

Kontseiluburuak labur azaldu du zer parte-hartze izan duen Eskola Kontseiluaren ekitaldi eta bileretan, osoko bilkurak 2020ko ekainaren 23an egin zuen azken bileratik hona. Estatuko Eskola Kontseiluaren bileren berri ere eman du eta, orobat, adierazi hartu duela parte osoko bilkurak 2020ko ekainaren 23an egindako bilkuran eta Autonomia Erkidegoen Partaidetza Batzordeak ekainaren 18an eta irailaren 10ean egindakoetan.

4. COVID-19aren kontrako neurriak koordinatzeko lantaldea sortzea. Izena: “COVID-19a koordinatzeko Hezkuntzako lan batzordea”.

Kontseiluburuak azaldu du nola eratu den aipatutako lantaldea eta, orobat, esan du zernahi zorion-mezu jaso dituela autonomietako beste eskola kontseilu batzuetatik Nafarroako Eskola Kontseiluak batzorde tekniko horren funtzionamenduan izan duen parte-hartzea dela eta. Batzorde horretako kide dira Hezkuntzako, Osasuneko eta Unibertsitateetako Departamentuko teknikariak.

Pedro Rascónek esan du ez dituela ulertzen lantalde horren sorrerari buruzko zenbait alderdi.

Nafarroako Eskola Kontseiluko idazkariak hitza hartu eta esan du Nafarroako Gobernuak egoki ikusi zuela COVID-19aren kontrako neurrien batzorde teknikoak garatuko zituen edukietan, hots, hezkuntza sisteman aplikatu beharrekoetan, Nafarroako Eskola Kontseiluko ordezkariak bertan izatea, partaidetza osoz, eta, horrenbestez, erabaki zen lantalde bat eratzea eta hartan sartzeari hiru departamentuetako teknikariak eta Nafarroako Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorreko kideak. Proposamen hori

eraman zen osoko bilkurara, lantalde hori sortzeko. Halaber, esan du beharrezkoa izanen dela Nafarroako Eskola Kontseiluko osoko bilkurak batzorde iraunkorrari delegatzea Nafarroako Gobernuari komunikatu beharreko proposamenen idazketa eta onespina, aipatutako lantaldean egindako proposamenak abian jartzerakoan eraginkortasunez jokatu behar baitzen.

Botoetara eraman da COVID-19aren kontrako neurriak koordinatzeko lantaldea sortzeko erabakia. Bertan dauden batzordekideek aho batez onartu dute.

Era berean, botoetara eraman da osoko bilkurak proposamenak onesteko batzorde iraunkorrean delegatzeko erabakia. Bertan dauden batzordekideek aho batez onartu dute.

5. 2020/2021 ikasturterako lan plana.

Kontseiluburuak azaldu du Nafarroako Eskola Kontseiluko Lan Planaren 2020-2021 ikasturterako edukia. Halaber, adierazi du aurreko ikasturteetako lan planen egiturari jarraitzen diola eta, horrenbestez, hura onestea eskatzen du.

Onartu da, bertaratutako kideek baiezkua emanda.

6. Aurrekontuaren aurreproiektua 2020-2021 ikasturterako.

Kontseiluburuak batzordekideei banatu die aurreproiektua duen dokumentua eta, segidan, haren edukia labur azaldu du. Hartara, adierazi du akats bat dagoela dokumentuan: Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Eskola Kontseiluari 45.000 euro ematen dizkiola esaten da. Zenbateko hori okerra da, 35.000 euro eman nahi baitizkio. Gainera, adierazi du gastu-kopuru osoaren zenbatekoa ez dela 67.900 eurokoa, 57.000 eurokoa baizik.

Idazkariak, halaber, esan du dokumentua zuzendu beharko dela eta zifra zuzenak jarri. Hori egin ondoren igorriko zaie kontseiluko kide guztiek, azter dezaten. Era berean, adierazi du hezkuntza itunaren ondoriozko gastuen gaineko dokumentua kendu

beharko dela, harik eta Hezkuntza Departamentuarekin haren formatua egiazki zehaztu arte.

Onetsi da Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2020-2021 ikasturteko aurrekontua aurreko paragrafoetan adierazitako zuzenketekin. Aho batez onetsi da.

7 eta 8. 2020-2021 ikasturteko memoriaren eta Nafarroako Hezkuntza Sistemaren 2020-2021 ikasturteko Txostenaren egoeraren gaineko informazioa.

Kontseiluburuak hitza hartu eta labur adierazi du memoria eta txostena zertan diren.

9. “Jokabide-laguntza positiboa eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeak” XXV. jardunaldiak.

Kontseiluburuak jardunaldi horien eduki eta garapenaren gaineko argibideak eman ditu.

Sonia Rivasek adierazi du jardunaldi hori edo beste jardunaldi batzuk modu ez-presentzialean egin beharko liratekeela, babes gisa, eta, hala eginez gero, hedapen handiagoa izanen luketela.

Kontseiluburuak erantzun dio aurrez aurre egin nahi direla, nahiz eta streaming bidez ere emanen diren.

10. Galderak eta eskaerak.

Mari Luz Sanzek eskatu du hezkuntza inklusiboari buruzko jardunaldiak egitea; hark ordezkatzeko duen erakundeak askotan egin dio eskaera berbera kontseiluko buruari.

Mikel Rodriguezek azaldu du eskaera oso dela egokia eta ez du aukera huts egin hezkuntza bereziko ikastetxeen lana zorrotz defendatzeko.

Soledad Garzónek adierazi du ikasgela alternatiboen bidez bideratzen ari dela hezkuntza inklusiborako prozesua.

CERMINeko ordezkariak proposatutakoarekin bat etorritz, Arantxa Ruizek proposatu du gai hori Jokabide-laguntza positiboaren gaineko jardunaldietan sartzea.

Kontseiluburuak esan du ados dagoela eta jardunaldian sartzeko aukera aztertuko dela.

Mikel Lizasok eskatu du jardunaldi horietan aztertu beharko litzatekeela ikastetxe arruntetan dauden premia bereziak dituzten ikasleen gaia.

Kontseiluburuak hitza hartu eta esan dio ikastetxe horiek eta haien ikasleak sartuta daudela jardunaldi horietan.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, kontseiluburuak osoko bilkurara bertaratu diren kideen parte-hartzea eskertu du, eta bilera bukatutzat eman du 18:33an, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.